

EVERESTEK BERAKE ERE EZ ZUEN NAHI




Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

India, 1823. William Lambton Indiako topografia superintendente hil zen. 1802an hasi zen hegoaldetik iparraldera azpi-kontinentearen azterketa topografikoa egin eta mapatan jasotzen. Lan mardula osatzeko mende ia osoa beharko zuten, baina Lambton hil zenean, azken bost urtetan haren alboan aritutako George Everestek hartuko zuen kargua. 1830ean Indiako topografia arduradun nagusi izendatu zuten eta lurraldea iparralderantz aztertzen jarraitu zuen. Lur-neurtzaile zehatza izateaz gain, asmatzailea ere bazen eta topografia tresnetan funtsezko hobekuntzak egin zituen galestarrak. 1843an erretiratu zen, Himalaiara iritsi gabe, eta Andrew Scott Waugh izendatu zuten haren ondorengo.

1852an Radhanath Sikhdar matematikariak munduko tontorrik garaiena aurkitu zuen eta Waugh eman zion horren berri. Momentuz, XV. tontorra esan zioten mendi hari. Baina 1856an Waughrek Everest izena proposatu zuen. George Everestek berak ez zuen nahi sekula ikusi ez zuen mendi hark bere izena izatea eta proposamen haren aurkako argudioak eman zizkion Royal Geographical Societyri 1857an: bertakoek ezin zuten *everst* idatzi eta ahoskatu, eta Indian jardundako topografo britainiarren irizpidea bertako jatorrizko



George Everest (1790-1866) galestar geografoak ekarpen handiak egin zizkion topografiari, neurketa zehatzak eginez eta tresneria hobetuz. Baina munduko gailurrik altuenari haren izena jarri ziotelako da ezaguna, mendia sekula ikusi ez zuen arren.

toponimiari eustea izan zen. Horregatik, Kangchenjunga, Cho Oyu, Manaslu, Nanga Parbat, Annapurna eta halako izenak dituzte munduko gailurrik garaienak. Baina Waughrek argudiatu zuen XV. tontor horrek ez zeukala jatorrizko izen garbirik, tibetarrek Chomolungma (ama sakratua) eta nepaldarrek Sagarmatha (unibertsoaren ama) esaten zioten arren.

Munduko bigarren gailurrarekin, K2-rekin, antzeko zerbait gertatu zen, eta kasu horretan hasieran jarritako kodeari eustea erabaki zuten –Godwin-Austen esploratzailearen izena iradoki zuten

arren, ez da sekula izen ofiziala izan-. Baina Royal Geographical Societyk Everest izena ofizialdu zuen 1865ean, George Everest hil baino urtebete lehenago eta haren nahiaren kontra.

Ipar Amerikako gailurrik altuena Alaskan dago eta bertakoek Denali (handia) esan izan diote beti. Baina 1896an William McKinley AEBetako presidentearen omenez, haren abizena jarri zioten mendiari eta hori izan du urte luzez izen ofiziala. 2015etik aurrera, ordea, jatorrizko izena, Denali, eskuratu du gailurrak, beste oker batzuk ere zuzentzeko berandu ez dela erakutsiz. ■



TEJAS GARGE

Milaka urteko milaka petroglifo

Duela 12.000-5.000 urte inguru Indiako mendebaldeko kostaldeko ehiztari-biltzaileek egindako milaka petroglifo –arrokatan grabatutako irudi edo diseinuak– aurkitu dituzte Konkaneko kostaldean. Batzuk ezagunak ziren, beste batzuk oraintsu aurkitu dituzte, 2017ko irailean abiatutako ikerlan baten ondorioz. Elefanteak, oreinak, tigreak, basur-

deak, tximinoak, marrazoak... aurkitu dituzte, giza irudiez eta forma abstraktuez gain. Tejas Garge Maharashtrako Arkeologia eta Museoen saileko zuzendariaren esanetan, “ez zituztenez animalia etxekotuak, lanabesak edo nekazaritza jarduera iradokitzen duen beste ezer irudikatu, Mesolito garaikoak direla ondorioztatu dezakegu”. ■